

# KRISTAU IKASBIDEA

## BERTSOTAN

LENENGO MALA

Kristau Ikasbidea kantuz eta jolasean aurei erakusteko bide ereza ta alaia.

ETXANIZ'TAR NEMESIO APAIZAK

EGIÑA

# KRISTAU IKASBIDEA BERTSOTAN

## LENENGO MAĪA

ETXANIZ'TAR NEMESIO APAIZAK EGIÑA

ORDORIKA
Irarkun-lantegiak
Muelle de la Merced, 3, 3.º
BILBAO

NIHIL OBSTAT:
*Ignatius Valdes*

IMPRIMATUR:
Victoriae, 22 Julii 1950
*Dr. Josephus Grau*
Vic. Cap.

*JABEA BA-DU*

*Euskerak burua jasotzea, Jaungoikoak nai du.*
**(Aita Kardaberaz agurgariaren itzak).**

## *Aur Euskaldunei*

***Nere lagun txikiok:***

***Urte auetan Dotriña ikasteko makiña bat naste ta atzerapen izan dituzue: zuetatik asko ta asko, Kristau Ikasbideko gauzarik beaŕenak ikasi gabe geldituzerate. Oŕegatik, Jesus, aur guztion lagunik onena, bear bezela ezagutzeke zaudete oraindik.***

***Jesus'ek beŕiz, aur euskaldunok, asko maite zaituzte, ta zuen etxeko amak egiten dizuen euskera berean itzegin nai dizue.***

***Nik, zuen Lagun maite ori, eŕezago ezagutu ta maitatzen ikasi dezazuen, liburutxo au egin dizuet. Zuen kantu ta jolasetan Jesus tartean izatea nai ba-dezue, ikasi itzazue pozik ondoren dijoazkitzuen abesti auek.***

**Azkoiti'ko Santa Kutz'en, 1951'gaŕen urteko Donibane egunean.**

***Egil̃ea'k***

# I

# OTOITZAK

## Aita Gurea






## Agur, Maria




### Aintza



# Agur Eregiña

***Bi taldek txandaka***








## Salve Eŕikoia






## Salve Eŕikoia

**2.**

Zure oñetan deika dituzu
Eba'ren ume galduak,
antziz ta malkoz negaŕezko ibar
onetan erbestetuak.
Ea ba, itzul gugana, zure
begi ain eŕukitsuak. } *(bis)*

**3.**

Erbeste onen ondoren, Ama,
pekatarioi erakus
zure sabelak sortua degun
Seme bedeinkatu Jesus.
¡O Biozpera! ¡O eŕukior!
lagun gaitzazu zure eskuz } *(bis)*

**4.**

Jesukristoren Ama Donea,
otoi gure alde, aŕen,
Aren agindu bidezkoetan
ibiliaz emen zuzen,
Beraren eskein zerutikoak
irabaz ditzagun. Amen. } *(bis)*

# Jesukristo, nere Jaun






# Jesus Auŕa'ri




# Ama Maria'ri



# Jainkoaren Ama




# Aingeru Zaitzal̄eari






# Siñeskitza






## Siniskaiak






*Jaungoiko bat* besterik ez degula aitortzen dot aur̄ena:
Jainko bakar ontan ditugu *iru Persona*. Kredoan...

1 Lenbiziko sinisten det: *Aita Jaungoiko Alguztiduna.*
*zeru-lur̄en Egil̄ea*, zintzoen lagune. Kredoan...

2 Bigar̄en sinisten det: *Jesukristo* gure Jaun da Jabea:
*Aita Jaungoikoaren Seme bakar* maitea. Kredoan...

3 *Espiritu Santuaren egitez* degu Jesus *sortua:*
*Andre Maria garbiarengandik jaioa*. Kredoan...

4 *Pontzio Pilatoren mendean* izan zan Jesus *mindua:*
*Gurutziltzatua, il̄a ta obiratua*. Kredoan...

5 *Inpernuetara jetxi ta il̄en artetik*, Jesus ona,
*irugar̄en egunean piztu zan* gal̄ena. Kredoan...

6 *Zeruetara igo, ta Aita Jainkoaren eskubian*
*eseririk dago* Jesus zorion aundian. Kredoan...

7 Zazpigar̄en siniskaia: Jesus *zerutik jetxiko dala:*
*biziak eta il̄ak epaituko dituala*. Kredoan...

8 Zortzigar̄en sinisten det: *Espiritu Santu Jaungoikoa:*
Izatez Aita ta Semearen kidekoa. Kredoan...

9 *Eliz Ama Done ta katolikoa* det gero sinisten:
*Santuen Alkartasunez* gaitu aberasten. Kredoan...

10 Amargar̄en siniskaia: *Pekatu guzien barkamena:*
Jesukristok apaizei emandako almena. Kredoan...

11 Amaikagar̄en siniskaia: *Aragiaren piztuera:*
ilda gero guztiok ber̄iz piztuko gera. Kredoan...

12 Amabigar̄en sinisten det: *Betiko Bizitza* ba-dala:
inpernu edo zeruan, merezi bezela. Kredoan...
Ontaz bukatu degu siniskai nagusien kanta-sail̄a:
¡Noizbait zeruetan pozik kanta ditzagula! Kredoan...

# Amar Aginduak




Kristorenak,
Kristorenak gera:
Kristorenak betiko
izango gera.

1.

Jaunak amar agindu
jaŕiak dizkigu:
bere gogoa aietan
erakusten digu.
Kristorenak...

2.

Lenengo aginduak
auxe du legea:
JAUNGOIKO Jauna beti
MAITENA IZATEA.



3

Amar aginduetan
au da bigaŕena:
EZ AILPEŔIK AITATU
JAUNAREN IZENA.

4

Irugaŕena au du
Jaunak agintea:
JAI EGUNAK, lan gabe
beti JAI ARTZEA.

5

Laugaŕen agindua
on da jakitea:
GURASOAK maite ta
AINTZAT EUKITZEA.

6

Boskaŕena dagokit
orain esatea:
ez neronen bururik,
EZ IÑOR ILTZEA.

7

Seigaŕen agindua:
garbi bizitzea:
ARAGIKERIRIK EZ
iñoiz EGITEA.

8

Zazpigaŕena dator
uŕengo legea:
besterenik ez artu,
ta EZ OSTUTZEA.

9

Zortzigaŕenak dio:
EZ ESAN GEZUŔIK,
EZ EGIN GEZUŔEZKO
TESTIGUTZA TXAŔIK.

10

Bederatzigaŕenak
au dauka jaŕirik:
EZ NAI IZAN BESTEREN
SENAR-EMAZTERIK.

11

Amargaŕenak dio:
BESTEREN GAUZARIK
OKERBIDEZ EZ NAI IZAN
beiñere artzerik.

12

Lenengo irurak daude
begira Jaunari:
beste zazpirak beŕiz,
gure urkoari.

13

Amar agindu auek
gogora ditzagun:
zeruetako poza
iritxi dezagun.

# Ama Eliza Donearen Aginduak






# Ama Eliza Donearen Sakramentuak



## II

# GURUTZEA (1)




(1) Bi doñu jartzen dizkitzut. Nai dezun doñua aukera dezazun. Nai ba-dezu, doñu biak txandaka kanta zenitzake.





II

# GURUTZEA

1

Jaungoikoari eskeŕak,
kristau egiñak gera:
kristau izate onek narama
Kristoren agindupera.
Bataioz kristautu nintzan,
ta arki nuan Eliz-saŕera;
Kristorekin ba-goaz auŕera,
jaŕiak gaude Aren legera:
Jesukristoren Gurutza degu
kristauok gure bandera.

2.

Gurutza degu kristauok
gure ezaugaŕia:
antxe Jesusek guztion alde
eman bai-zigun bizia.
Guk deabruaren mende,
genduan anima jaŕia:
Jesusek bere odol guzia
emanaz eten zigun katia:
oŕela iritxi zigun Jaunak
zeruetako zoria.



3.

Bitara egin oi-degu
kristauok Gurutz-deia:
GURUTZE SANTUAREN egiñaz,
bialtzen degu etsaia.
AITAREN egiñaz, lagun
artzen det Irutasun goia.
Gurutza egiten beti saia,
zapaltzeko etsaiaren naia:
oŕela irabaz al-dezagun
zeruan betiko jaia.

4.

Gurutzea beti degu
kristauok biotzean:
Gurutz egiñaz jaiki oi-gera
ogetik zintzo goizean:
jatordu-auŕez, Gurutza
egin oi-degu mai-auŕean:
etxetik irtetzen naizenean,
Guŕutza egiten det atean:
Gurutz egiñak kezkarik gabe
sartzen naiz gabaz ogean.

## III

# Kristau Ikasbidearen Lau Zatiak




**Kristauon Ikasbidea**
**orain asiko gera**
**kantuz esaten.**
**Lau zatietan zabaldua degun**
**jakintza adierazten.**
**Sinistu bear deguna**
**lenengo zatiak digu erakusten**



**bigaŕenean, nola otoi egin**
**goi-argiz degu ikasten.**
**Jainkoa ta Elizaren**
**aginduak datoz ondoren:**
**Sakramentuak, laugaŕen.**
**¡Bedeinkatua izan bedi beti**
**gure Jaungoiko laztana!**

## Maite-damua

Ez nau jaŕi, Jauna, Zu maitatzen
eskein didazun zeruak:
ezta are pekatutik aldentzen
infernu beltzeko suak.

Zuk mintzen nazu, Jauna, ikusirik
zure Gurutz t'eriotza,
zure Gorputz ain uŕatu oŕek
sutan jartzen dit biotza.

Ta ain zaitut maite!... Zerurik gabe,
berdin maitatzen nengoke:
infernu gabe, pekatuari
bildur berdiña nioke.

Ez dezu zoŕik nerekin, Jauna:
maite aren nik oinbeste.
Ezer espero ezpanu ere,
berdin zinduzket nik maite!

---

Erderazko «No me mueve, mi Dios, para quererte» olerkitik euskeratuak ditut nere itz auek.

## IV

# LENENGO IKASGAIA

## Sinismena






# LENENGO IKASGAIA

## Sinismena

1.

Izan diteken izaterikan
bikañena, Jaungoikoa:
zeru ta lura, Arek egiñak;
guztia, Aren mendekoa.
Berak saritzen ditu zintzoak,
Berak zigortzen gaiztoa;
ta leku danak betetzen dago
Aren aintza betikoa.

2.

Zeru, lur eta inpernuetan,
ezta leku ezkuturik,
Jaungoikoaren begi argiak
ikus ezin dezakenik:
gogorapenik ezkutuenak,
euki aren guk ixilik,
Jaungoiko Jaunak ederki daki
nola diran eta nundik.

3.

Ez da Jaungoiko bat besterikan:
Ura guztion Nagusi:
Jaungoiko ortan, Iru Persona
bear ditugu ikusi:
Aita, Semea ta Espiritu
Santua zuzen ikasi:
Iru Personak, banak ditugu:
Irurak berdin jauretsi.

4.

Gauza guziak ezerezetik
atera zitualako,
EGIĹE dala, esaten degu,
gure Jaun eta Jaungoiko:
Aren eskuak egiñak gera,
zeruko eta luŕeko:
argatik gure Jabe bakaŕa,
Bera degu sekulako.

5.

Jaungoiko Jaunak bere esanetan
bizitzeko egin gaitu:
Aren esanak, gizonak emen
zintzo gordetzen ba-ditu,
beti-betiko sari edeŕa
goian lezake arkitu:
zorioneko izan nai ba-det,
Jainkoa gogoz serbitu.

6.

Jainkozko Iru Notin Donetan
Semea da bigaŕena:
Berau da gizon egin zana, ta
Jesukristo du izena.
Gu salbatzeko Aurtxo eginda,
jetxi zitzaigun Belena:
nolatan bizi bear genduan,
erakutsiaz uŕena.



7.

Ezkutapena ta misterio
aundia GIZAKUNDEA:
Andre Maria Birjiñagandik,
Jaungoikoaren Semea
gizon egin zan, guri agertuz
bere maitasun betea:
Bearek zuzen erakus zigun
zeruetako bidea.

8.

Graziaz bete-betea degu
Andre Maria Birjiña:
gorputzez eder, animaz garbi
dan Andre bikain-bikaña:
Jaungoikoaren Ama, ta gure
Ama batera egiña:
Bera da gure Bitarteko ta
Aingeruen Eŕegiña.

9.

EROSKUNDEA da kristauontzat
misterio gozoena:
onek gogora ekarzen digu
maitasunaren almena:
Jainko aundia gizonongatik
neketan jaŕi zuena,
Gurutz batean emanaz bere
bizitzeari azkena.

10.

¿Zergatik zaude, Jesus maitea,
ilotzik Gurutze ortan?
—Pekatariok gal ez zindezten
deabru-atzapařetan:
onen mendetik erosteařen,
il nintzan Gurutz-neketan,
betiko eriotz gogořetik
zuek askatuaz bertan.

11.

Aita ta Semeagandik dator
Espiritu Santu Jauna:
Aita ta Semea bezin bikain,
altsu, goiti, Jainko dana:
Irutasuneko Notiñetan,
Bera da irugařena:
gure animen Maitale zintzo,
Santugile ta Laguna.

12.

Aitor dezagun orain biotzez,
egizko Eliz bakařa:
sinisten degun kristau guztiok
osatzen degun batzařa:
Eliza onek Aita Santua
du bere buru azkařa,
ta Jesukristok sortua degu
beraren batzar goitařa.



13.

Il bezin laster agertuko da
bakoitza Jainko auřera:
gure bizi on edo txařaren
kontu Ari ematera:
Jaungoikoaren epaia arruta
andik zabalduko gera,
Zerura edo Garbitokira,
edo ta infernu beltzera.

14.

Bildurgařia da infernua:
betiko zoritxařean
an daude lařı gaizto galduak,
Jainkoaren zigorpean.
Ara joaterik nai ezpadezu,
ez il oben astunean:
bestela, an da zure lekua,
negargařizko etxean.

15.

Toki ederik iñun ba-degu,
toki edeřa Zerua:
zoriondunak antxe arkitzen
dute atsegin-lekua:
an arkituko degu guk ere
zorion benetakoa:
Jaunaren grazian iltzen danak
an du sari betikoa.

V

# BIGAREN IKASGAIA

## Otoitza






## Otoitza

2

Jaunagana biotza
gogoz jasotzea,
ori da kristauontzat
otoitz egitea:
Jaungoikoa goratu,
esker ematea,
edo-ta mesedeak
Ari eskatzea.

3

Andre Maria dator
Jesusen ondoren:
ikasi Ama oni
otoitza egiten,
AGUR MARIA eta
SALBEA esaten,
Mariaren bitartez
zerura gaitezen.

4

Jaungoikoari gure
alde eskatzeko,
Aingeru ta Doneak
daude bitarteko:
Aingeru bana degu
gu zintzo zaitzeko:
otoitz aueri ere,
zeruan sartzeko.

VI

# IRUGAŔEN IKASGAIA

## Jaungoikoaren Legeko Aginduak






VI

# IRUGAŔEN IKASGAIA

## (1) - Jaungoikoaren Legeko Aginduak

1 Jaungoikoaren Legea
da zerurako bidea,
amar aginduz betea.
Agindu oiek bete itzazu
osoro, kristau maitea:
ta oiek ez betetzea,
pekatu da ta kaltea,
animarentzat katea.

2 Jaunak zerbait debekatu
duanetan izan kontu;
besteia, or da pekatu.
Nork bere gogoz ez alakorik
esan, egin, gogoratu,
ez nai izan, ez poz artu;
Jaunaren esana aditu,
zeruan gaitzan saritu.

3 Bi eratako obenak,
ariñak eta astunak,
dira animaren legenak.
Oben ariñak, gure anima
il gabe, aultzen dutenak:
astunak beŕiz, txaŕenak,
anima iltzen digutenak,
inpernu-bide zuzenak.

(1) Bi doñu auetatik, nai dezuna aukera zenezake.

VII

# LAUGAŔEN IKASGAIA

## Ama Eliza Donearen Agindu ta Sakramentuak






VII

# LAUGAŔEN IKASGAIA

## (1) Ama Eliza Donearen Agindu ta Sakramentuak

**1**

**Ezaguera ba-dezu,**
**eta zazpi urte,**
**Meza osoa entzun**
**jai eta igande:**
**ta al-izanik, ez utzi**
**Meza entzun gabe:**
**bestela, oben astun**
**azpian ziñake.**

**2**

**Pekatu astunpean**
**erori ba zera,**
**urtean bein joan bear**
**dezu aitortzera:**
**jaunartu auŕez ere,**
**aitorlea aukera:**
**ta iltzeko aŕiskuan,**
**egin ori bera.**

**3**

**Il-zorian ba-zaude**
**aitortu eziñik,**
**kristaua, maite-damuz**
**damutu il auŕetik,**
**lenbailen aitortzeko**
**asmoa arturik.**
**Oŕela il ezkero,**
**etzera galdurik.**

**4**

**Pazko-aldi baŕuan**
**urtero jaunartu,**
**ta iltzeko aŕiskuan,**
**jaunartuz indartu:**
**ezaguera ba-dezu,**
**au kontuan artu,**
**pekatu astunpean**
**ez zaitezen sartu.**

**5**

**Pekatu aundia da,**
**oker jaunartzea,**
**ta ikaragaŕia**
**ori egitea,**
**irugaŕen aginduz**
**gaizki gelditzea,**
**ta bi pekatu aundi**
**lengoei geitzea.**

**6**

**Gizona danez, Jesus,**
**Zeruan daukagu,**
**ta Aldareko Kutxan,**
**Sakramentu baŕu:**
**andik gure animak**
**janaritzen ditu,**
**ta grazizko bizitza**
**ugaritzen digu.**

---

(1) Bi doñu auetatik, nai dezuna aukera zazu.

7

Jaunartzeko pekatu
astunikan gabe,
bi lege auek zintzo
bear dira bete:
egon Jaungoikoaren
grazia galtzeke,
ta gaberdi ezkero,
baraua uŕatzeke.

8

Jaunartzeko, Elizak
jaŕi du araua:
oben astunik egin
ba-dezu, kristaua,
aitortuaz argitu
animaren gaua:
oŕela, Jaunartzeko
dezu bide laua.

9

Bataio ezkeroko
pekatu guztiak
Aitortzaren bitartez
gelditzen garbiak.
Aitortu pekatuak,
artu barka-itzak,
sendatuaz oŕela
zure oben-gaitzak.

10

Aitorketa on batek
bost lan bear ditu:
lenengo azterketa,
bigaŕen, damutu,
irugaŕen, asmoa,
laugaŕen, aitortu,
boskaŕen, pekatuen
ordaña osatu.

11

Egindako obenak
burura ekartzeko.
AZTERKETA jaria
dezu auŕenengo.
Jainkoari argia
eska ortarako,
aztuta aitortzeke
bat ere ez uzteko.

12

Egindako obenen
goŕotoa artzeko,
biotz-samintasuna
dator laguntzeko.
Biotz-min au DAMUA
da, ta ortarako
ikus pekatuaren
gaitz azkengabeko.



13

Pekatua uztea,
gogoz erabaki:
pekatu bide txaŕak
alde batera utzi:
au da ASMO sendoa
bear dana euki,
obenen barkapena
nai ba-da iritxi.

14

Ondoren AITORKETA
zer dan esatea:
pekatu danak argi
adieraztea,
apaizaren auŕean
garbi azaltzea:
ori da AITORKETA
legez egitea.

15

Gaizki egindakoen
ORDAÑA da azkena,
pekatuen zigortzat
apaizak emana,
penitentzia edo
oben-neke lana:
Kristau-Ikasbidea
oŕa, buka dana.

## Andre Maria'ri Gorapena

Doñu zaŕa




Zuri eskeŕak, oŕa bukatu
bertsotan Kristau-Dotriña:
oŕegatikan Zuri goraka
gatoz, Maria Birjiña.
Zu zera Jaunak ordu onean
guztion Ama egiña:
ta zeruetan argitan zaude,
Aingeruen Eŕegiña.



VIII

# ABESTIAK

## Gau ozkarbi




2. Guazen danok
Belen'era,
artzaiekin batera,
Jainkoa lastotan ikustera,
esku txikiak laztantzera:
gure Jesus maiteari,
biotza eskeintzera.

# Gau zoragařia




¡Gau zoragařia!
Zerutiko argia,
gaberdiz jetxia,
gizonen pozgařia!
Aingeru taldia
kantuz da asia:
¡Aintza eta pakia!
Eguzki bizia,
Jesus da jaikia,
argituz gaberdia.



# Izar beřiak




Izar beřiak poztu
digu gaur Belen-aldea. *(bis)*
Gaberdi izan ařen,
argi da estalpea:
lastotan etzana agiri da
Jaungoikoaren Semea. *(bis)*

# Aingeruak




2. Loak artu du. Aingerutxoak
egan dabiltz inguruan:
ixil-ixilik makurtu eta
laztantzen dute musuan.

3. Amesetan da Jesus maitea,
iři-pařez bere ezpaiñak:
Bera ikusteko zabaldu ditu
zeruko ateak Jaunak.

4. Esnatu da ¡oi! bere begiak
negařez bete zaizkio:
Aingeru batek uřezko ontzian
malkoak artzen dizkio.



# Osti zuri




Osti zuri, Izar txuri,
Aingeruen argitzari:
Osti zuri, Lili txuri,
goi urdiñeko opari:
Osti zuri, ogi txuri,
Jainko egindako gari:
Osti zuri, Bildots txuri,
¡Zaite gaur nere gosari!

Aldareko Jesus ona,
oso nator zure egaři,
nere biotzak Zu gabe,
ezin du pozik ekaři.
Zu jan ezkero, beste iñor
¿nola dezaket pozgaři?
Betiko maitasun-itza
emaiogun gaur alkaři.

# Begi edeŕok




Doñua nerea da, ta itzak erderazko «Ojos bellos que me dáis» madrigaletik euskeratuak ditut.



# Begi edeŕok

Begiratu utsez gozoro iltzen
nazuten begi edeŕok:
begira ezik, bizi gozoa
kentzen dezuten izaŕok.

Zuen gozoak, edo ukoak,
berdin iltzen dit biotza.
Ukatuz, miñez, ta begiratuz,
maitez dator eriotza.

Nolanai iltzen nazun ezkero,
naiz gogoŕez, naiz legunez:
begira, Jesus, atertu gabe,
¡ta il nadila maitasunez!

# ARKIBIDEA


**I.—Otoitzak.** Orld.ª

Aita Gurea . . . . . 4
Agur, Maria . . . . . 5
Agur Eregiña . . . . . 6
Salbe Erikoia . . . . . 8
Jesukristo, nere Jaun . . . . . 10
Jesus Aura'ri ta Ama Maria'ri . . . . . 11
Jainkoaren Ama . . . . . 12
Aingeru Zaitzaleari . . . . . 12
Kredoa (Siñeskitza) . . . . . 13
Siniskaiak . . . . . 14
Amar Aginduak . . . . . 16
Ama Eliza Donearen Aginduak . . . . . 18
Ama Eliza Donearen Sakramentuak . . . . . 19

**II.**

Gurutzea . . . . . 20

**III.**

Kristau ikasbidearen lau zatiak . . . . . 24
Maite-damua . . . . . 25

**IV.—Lenengo ikasgaia.**

Sinismena . . . . . 26

**V.—Bigaren ikasgaia.**

Otoitza . . . . . 32

**VI.—Irugaren ikasgaia.**

Jaungoikoaren Legeko Aginduak . . . . . 34

**VII.—Laugaren ikasgaia.**

Ama Eliza Donearen Agindu ta Sakramentuak . . . . . 36
Andre Maria'ri Gorapena . . . . . 40

**VIII.—Abestiak**

Gau ozkarbi . . . . . 41
Gau zoragaria . . . . . 42
Izar beria . . . . . 43
Aingeruak . . . . . 44
Osti zuri . . . . . 45
Begi ederok . . . . . 46


# ZUZENDU BEARRAK

(Erratas)

| Orrld.ª | |
|---|---|
| 8 | *Salve* ordez, jarri *Salbe.* |
| 9 | *Salve* ordez, jarri *Salbe.* |
| 25 | Azkenengo ahapaldi edo estrofako bigarren bertsoa onela: *«maite aren nik oinbeste».* |
| 30 | Bigarren bertsoa: *«illotzik Gurutze ortan?».* |
| 36 | Musika-azpian dauden itzak, seigarren ahapaldikoak dira, gero ikusten dan bezela. |

Egile beronen beste idaztiak:

Arraldea (Ipui zarra)

Egintza Katolikoatzaz Ikasbidea (Aurrentzat)

Itziar'ko Andre Maria'ri Bederatziurrena

Urrategi'ko Andre Maria'ri Bederatziurrena

¿Nola idatzi euskeraz? (Idazki-sorta)

Kanta-kantari

ESKATU NAI DITUZUNAK:

ETXANIZ'TAR NEMESIO'RI

Santa Cruz - Azkoitia - (Gipuzko